

Dilubioa aldrebes

Hondarribia, 37. zk., 1990-03: 4.

Ilun zaharreko Dilubioaren erreportaiak, bi zati nagusi ditu.

Bat: berrogei egun eta berrogei gau iraun zuen uholde handi hark; izugarria izan zen; Noek pilotatzen zuen Arka-untzi handi hartatik lehorrik ez zen ikusten.

Eta bi: uholdearen aurkako erremedioa, lehortea izatea suertatu zen.

Orain artekoan Euskal Herria, uholdeetarako zuen joeraz zen ezaguna; baina gaur, uholde hura bera aldrebes gertatu balitzan, lehortea ari gara nozitzen; hemen egindako zein pekatu larriaren zigor ote!, ez dakigu.

Hala, pentsatzen da, ez da zaila hau pentsatzea, aspaldian bizi izan dugun dilubioren antzeko uholdearen hurren datorren lehortea dugula gainean.

Gu ez gara itun Zaharreko Noe-ren denboran bizi, noski, baina munduan zikloak agintzen dutela egia bada, eta hau pentsatzea ez da inozokeria, gaur aspaldi hartako bidetik gure zeruko hodeiak abiatu ez ote diren pentsatzen jartzea ere ez da zozokeria bat.

"Jainkoak", dio orduko erreportaia den itun Zaharrak. "Noe, irla bakar mugikor eta galduan geratu zela oharturik, haizaldia igorri zuen eta hodeietako euria gelditu egin zen... Zazpigarren hilaren hogeita zazpigarren egunean, kutxa Ararat mendigainean kokatu zen. Hamargarren hilabeteraino, ura lurruntzen zihoan, eta hamargarrenaren lehen egunean mendi-tontorrek agerian zeuden. Beste berrogei egunen buruan, Noek ireki zuen berak kutxan egin zuen leihoa, eta bele bat igorri zuen, eta belea irtenik, osteraka zebilen lurgainetik ura idortu zen arte. Uso bat ere igorri zuen, ura lurgainetik urritu ote zen ikusteko, eta beste zazpi egun itxoginda itzuli zen hankak non jarri ez eta; berriro, usoa kutxatik igorri zuen, eta hau arratsaldean itzuli zen, eta beste zazpi egunez itxoginda usoa berriz igorri zuen, eta ez zen oraingoan itzuli".

Aurkitu zuen lehorra.

"Seireun eta batgarren urtean, hilaren lehendabiziko egunean, lurrean ura idortu zen, eta Noek Arkaren sapaia jasorik alde orotara begiratu zuen, eta lurgainean ura idortu zen. Ta bigarren ilabetean, hilaren hogeita zazpigarren egunean lurra idorra zegoen".

Hondarribia gero kokatuko zen bazter honetan ere bai, noski.

Hau izan zen, garai hartako kazetariaren lana egiten zuen Noek idatzi zuena: "Dilubioaren hurren etorri zen lehorrea".

Ba orain arte Bizkaiko Golfoaren goiko-goikoan kokatu dagoen Euskal Herriari orain gutxi arte Europako pixontzia deitzeko arrazoirik izan badute, laster Europako Solarium bezala jarriko ote zaigu modan?

Hori hala balitz, eta ez dadila gerta, gure mendiak gorrituko lirateke, eta hemengo lainope eta lur hezetara eginak eta erdi ur garen animaliak eta personak, non biziko gara?!

Euskaldunok eguzkia bera baino nahiago baitugu kontrako itzala, eta zuhaitzen gerizpea bada, hobe.

Eta honetarako beharrezkoa den eguzki pitina nahi dugu, ez gehiago.

Orduko kazetariak ez zuen garai honetako garen gutaz ezer esan, eta gaurko kazetariak igjerri behar dena!

Horretaraxeko dugu hileroko *Hondarribia*.